

MINTZAMENA



Ekintza komunikatiboa: Ama batek, medikutara joan behar duela-eta, beste bati mesede bat eskatzea eta eskertzea.

Mesede eske

Ester: Arratsalde on! Jonen ama zara, ezta?

Lara: Bai.

Ester: Ni Unairen ama naiz. Gure semea eta zurea lagunak dira.

Lara: Ezagutu zaitut, bai. Zer gertatzen da?

Ester: Medikutara joan behar dut, eta ez dut Unai bakarrik utzi nahi.

Lara: Lasai, utzi nirekin. Hemen ondo egongo da, jolasean.

Ester: Segituan etorriko naiz bueltan. Eskertzen dizut mesedea, benetan.

Lara: Ez da ezer, neska! Horretarako gaude.